

Merkatuaren Segmentazioa

Gure proiektuaren helburu nagusia agureen ongizatea eta bakardadea ekiditea da. Horregatik, gure proiektua jubilatua dauden pertsonentzat zuzenduta dago. 65 urtetik gorako pentsiodunak onartzen dira eta urbanizazio honetan bizi ahal izateko bete behar duten baldintzak bakarrik bizitzea eta jubilatua egotea dira. Urbanizazio honetan bi multzotan banatuko genituzke agureak: Alde batetik, osasuntsuak daudenak eta behar garrantzitsurik jaso behar ez dutenak egongo lirateke. Beste aldetik, berriz, behar garrantzitsuak edota laguntza maila handiagoa jasotzeko beharra dutenak egongo lirateke. Adibide bat jartzekotan, aulki gurpildun batean dagoen agurea laguntza handiagoa beharko luke ibiltzeko gai den agure bat baino.

Agureak urbanizazio honetan bizi arren familiako partaideen bisitak jasotzeko eskubidea izango dute, izan ere, proiektu honekin lortu nahi duguna haien egunerokotasuna erraztea da, ez haien familiengandik banantzea edo urruntzea. Horretarako, ordutegi zehatz bat egongo lirateke (09:00etatik 21:00etara) denek elkarrekin eguna pasa ahal izateko, bestela, agian familiako kide edo partaideren batek bisita bat egingo balu gaueko 22:00etan eta haien aitona- amama/ aita-ama lotan egongo balitz ezin izango lituzke inolako bisitarik jaso eta bezero horren familia urbanizazioaraino joango lirateke gero berriz momentu berean etxera bueltatu behar iateko.

Horrez gain, elkarte desberdinekin harremanetan egongo ginateke bertako agureek txango eta bidai askotaz disfrutatu ahal izateko, INSERSOa egiten duen moduan. Janaria eta gainerako ezinbesteko gauzak haien esku izango lituzkete erosteko beharrik izan gabe, beste modu batean esanda, guk haiek behar dituzten baliabideak erraztuko geniozkegu, baina haiek baliabide hoietaz zaindu beharko lukete.